



BERDINTASUNERAKO 2017-2019 PLANIFIKAZIOA

EREMU OROKORRAK

Gobernu ona

Emakumeen ahalduntzea

2012-2020 BERDINTASUNERAKO II FORU PLANETIK

DATOZEN EREMU OROKORRAK





AURKIBIDEA

1.- EREMU OROKORRAK.....5

2.- GOBERNU ONA

HELBURUA 1:
PROZEDURA ADMINISTRATIBO GUZTIETAN
GENERO IKUSPEGIA TXERTATU.....7

HELBURUA 2:
BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIOA
ETA LANKIDETZA INDARTU.....8

3.- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

HELBURUA 3:
EMAKUMEEN AHALDUNTZEA LAGUNDU.....9





1.- EREMU OROKORRAK

Dokumentu honetan jasotzen diren, eta **Berdintasunerako 2017-2019 Planifikazioaren** zati bat diren, **Eremu Orokorrek 2012-2019 Berdintasunerako II Foru Planarekin** lotura dute. Berdintasunerako bigarren plan hau 2013, 2014, 2015 eta 2016 urteetan garatu da, urtero foru departamentuek egin dituzten programazioen bitartez. Horretaz gain, urte horien bukaeran urtero egindakoaren jarraipen txostena egin da.

EGOKITU ETA EGUNERATU

Legealdiaren aldaketa izan zenean, **berdintasunerako foru politiken barnean bi lan ildori eman zitzaien lehentasuna**: emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borroka eta kontziliazio erantzunkidea.

Bi lehentasun hauei erantzuna emateko, berariazko bi foru plan prestatu eta onartu ziren. Bi plan hauek Berdintasunerako II Planaren hainbat neurri jaso, eguneratu eta zabaltzen dituzte:

- “Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Plana”.
- “Gipuzkoako Kontziliazio Erantzunkiderako I. Foru Plana”..

Era berean, 2016ko programazioaren jarraipenarekin bat eginez, esandako **lau urteetan Berdintasunerako II Foru Planaren neurrien jarraipena ere egin zen**, hau da 2013-2016 bitartean egindakoaren jarraipena.

Batetik, lau urte horietan ekintzen bitartez landutako neurriak aztertu ziren. Bestetik, lantzen hasi gabeko neurriak eta horren zergatiak ere aztertu ziren -bereziki zailtasuna departamentuen eskumenekin zer ikusirik zutenak-, beti ere beharrezko egokitzapena egiteko.

Bestalde, Emakunde orduan prestatzen ari zen **EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII Planaren proiektuak erabiltzen zituen ardatzak eta terminologia** ere aztertu egin ziren, erakundeen arteko berdintasunerako politiken koordinazioa indartzeko eta bateratzeko aldera.

Azkenik, eta departamentuen iradokizunak jarraituz, **Foru Diputazioak bere politiken kudeaketarako martxan jarritako lan tresna informatiko berriei egokitutako eta errazago izan zitekeen idazkera** eman zitzaion. Helburua hauxe zen, berdintasunerako foru politiken programazioa eta jarraipena Kudeaketarako Plan Estrategikoaren programazioaren markoan eta aurrekontuan prestatzeko prozesuan egin ahal izatea, horretarako tresna berberak erabiliz, foru departamentuei lan bikoitzak eta lan zamak saihestuz.

Hau guztiaren bitartez, **Berdintasunerako II Foru Planaren neurrien eguneratzea** burutu da, “Eremu Orokorrak” izenpean jasoz. Bertan, aurreko urteetan garatu gabe edota guztiz garatu gabe geratu ziren neurriak eta aipatu diren berariazko bi foru plan berrietan (Aurre! Plana eta Kontziliazio Erantzunkiderako Plana) txertatu ez ziren neurriak jaso dira.



LABURTUZ

2012-2020 Berdintasunerako II Foru Plana **sei ildo estrategikoetan** antolatu zen:

- Gobernu ona.
- Zainketa duina eta guztiontzat.
- Bizitzaren iraunkortasunerako ekonomia.
- Ingurune iraunkorra.
- Sare eta praktika feministak.
- Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

Aurrerago aipatu den moduan, ildo estrategiko hauek 2013 eta 2016 urte bitartean garatu ziren. Laburtu dugun egokitzapen eta eguneratze prozesuaren ondoren, **Berdintasunerako 2017-2019 Planifikazioa hiru arlotan antolatu da:**

- Eremu orokorrak.
- Aurre! Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako foru plana.
- Kontziliazio erantzunkiderako foru plana.

Zehazki, "Eremu Orokorrak" izeneko arloa bi eremu eta hiru helburutan antolatu da:

- **Gobernu ona:**
 - o Prozedura administratibo guztietan genero ikuspegia txertatu.
 - o Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzaz indartu.
- **Emakumeen ahalduntzea:**
 - o Emakumeen ahalduntzea lagundu.

Hauetako helburu bakoitzerako garatu beharreko hainbat ekintza definitu dira, eta ekintza bakoitzaren garapeneren ardura izango duen foru zuzendaritza ere identifikatu da, ondoren jasotzen diren tauletan azaltzen den moduan.



2.- GOBERNU ONA

OR 1. HELBURUA: PROZEDURA ADMINISTRATIBO GUZTIETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATU.	
Ekintzak	Zuzendaritza Arduraduna
Or 1.1. Departamentuko politika, plangintza, programa eta jarduera guztien planifikazioa, inplementazioa eta ebaluazioa genero ikuspegitik egitea.	Zuzendaritza guztiak
Or 1.2. Prozedura administratiboekin eta departamentuko politikekin lotura duten langileen gaikuntza emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik.	Funtzio Publikoa
Or 1.3. Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua erabakiak hartzeko foru organoetan, organo kolegiatuetan, balorazio eta kontratazio mahaietan, epai-mahaietan, etabar.	Zuzendaritza guztiak
Or 1.4. Barneko zein kanpoko komunikazio inklusiboa , genero estereotiporik gabekoa, emakume eta gizonak berdín ikustaraziz eta hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eginez.	Zuzendaritza guztiak
Or 1.5. Sexu aldagaiaren txertaketa sistematikoa foru ikerketa eta estatistiketan , antzemandako desberdintasunen genero ikuspegiko azterketa, eta emakume eta gizonen egoerari buruzko berriazko diagnosi sektorialak egitea.	Zuzendaritza guztiak
Or 1.6. Foru kontratu eta diru laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatu eta beren jarraipena egitea, bai aurretiko balorazioa egiten denean eta bai, bereziki, lana betetzeko baldintzetan.	Zuzendaritza guztiak
Or 1.7. Foru arautegiaren prestaketan genero ikuspegia txertatzea eta genero eraginari buruzko aurretiko ebaluazio txostenak egitea.	Zuzendaritza guztiak
Or 1.8. Aurrekontuen planifikazioa genero ikuspegia erabiliz egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunean izango duen eragin positiboa lehenetsun irizpidetzat harturik.	Finantzak eta aurrekontuak
Or 1.9. GFAREN langileen kudeaketan emakumeen eta gizonen berdintasuna funtsezko irizpidetzat hartzea: sarrerako prozesuak, lanpostuen balorazioa, promozioa eta lan baldintzak.	Funtzio Publikoa



OR 2. HELBURUA: BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA INDARTU.	
Ekintzak	Zuzendaritza Arduraduna
Or 2.1. Berdintasunerako departamentuen arteko egituren indartzea, beti ere berdintasunerako planifikazioa eta jarduera koordinatu, hausnartu eta erabakiak hartzeko.	Zuzendaritza guztiak
Or 2.2. Berdintasunerako foru egituretan parte hartzen duten pertsonen berariazko gaikuntza.	Funtzio Publikoa
Or 2.3. Gipuzkoako udalen berdintasunerako politikak sustatzea eta indartzea, berdintasunerako beren berariazko egiturak, berdintasunarekin lotutako tokiko proiektuak eta lan prozesuak lagunduz eta indartuz.	Berdintasunerako Organoa
Or 2.4. Erakundeen arteko trukaketa eta lan komuna egiteko espazioetan parte hartzea, esaterako <i>Berdinsarean</i> , emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako eta berdintasunaren aldeko euskal udalen sarea.	Berdintasunerako Organoa
Or 2.5. Gipuzkoako berdintasunaren aldeko mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarteen mugimenduarekin parte hartzea eta elkarrikketa sustatzea eta koordinatzea.	Berdintasunerako Organoa
Or 2.6. Maila autonomikoan, mugaz bestaldekoan, estatuan eta nazio artekoan dauden berdintasunerako koordinaziorako eta lanerako espazioetan parte hartzea, esperientziak eta lan moduak partekatuz.	Berdintasunerako Organoa



3.- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

OR 3. HELBURUA EMAKUMEEN AHALDUNTZEA LAGUNDU.	
Ekintzak	Arduraduna
Or 3.1. Emakumeen etxeak eta emakumeen ahalduntzea lantzen duten eskola eta espazioak sortzen laguntzea eta indartzea, beti ere proiektu horiek sarean lan egin dezatela bultzatuz.	Berdintasunerako Organoa
Or 3.2. Gipuzkoan emakumeen ahalduntzea lortzeko dauden bitarteko eta jarduerak ezagutzera emango dituen informazio plataforma sortzea.	Berdintasunerako Organoa
Or 3.3. Bereziki neska gazteen eta neska migratzaileen ahalduntzea eta asoziazionismoa sustatzen dituzten jarduerak garatzen dituzten Gipuzkoako udalen egitasmoak laguntzea.	Berdintasunerako Organoa
Or 3.4. GFAREN parte hartze prozesuetan emakumeen eta mugimendu feministaren parte hartzea sustatzea.	Partaidetzako Zuzendaritza
Or 3.5. Emakumeen elkarteen interesei eta beharrei erantzungo dieten jarduerak programatzea GUNEA lan markoan.	Berdintasunerako Organoa
Or 3.6. Gipuzkoako emakumeen elkarteen mugimendua eta mugimendu feminista indartzea, beraiek mapa aldizka eguneratuz eta berdintasunaren aldeko beraien proiektuak lagunduz.	Berdintasunerako Organoa
Or 3.7. Gipuzkoako udal txikietan , bereziki landa eremuetan, emakumeen eta feministen asoziazionismoari berariazko laguntza ematea.	Berdintasunerako Organoa
Or.3.8.- Emakumeen eta bereziki emakume gipuzkoarren arte lanen eta kultura ekarpenen ikustaraztea, batik bat Zinemaldia, Tabakalera eta antzeko proiektu eta espazioetan.	Kultura
Or.3.9.- Aldi baterako egonaldien zerbitzuaren estaldura areagotzea eta baita asteburuan eguneko zentroaren zerbitzuaren estaldurarena ere.	Menpekotasunaren eta desgaitasunaren arreta
Or.3.10.- Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren eskuratzea sustatzea familia inguruneko Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoaren aurrean.	Plangintza, inbertsio eta prestazio ekonomikoak
Or.3.11.- Gipuzkoan pobrezia eta gizarte bazterketari buruzko azterketa egin eta zabaltzea genero ikuspegia kontuan hartuta, bereziki emakumeen egoerari erreparatuz.	Plangintza, inbertsio eta prestazio ekonomikoak



Or.3.12.- Autoenplegua eta ekintzailtza programek emakume eta gizonengan duten eragin diferentziala aztertzea eta baita feminizatuta dauden enpleguen lan-baldintzena ere.	Ekonomia sustapena
Or.3.13.- Emakumeen kooperatibak eratzeko laguntza eta aholkularitza zerbitzuak martxan jartzea, bereziki feminizatutako lan-arloetan eta landa eremuan arreta jarritz.	Ekonomia sustapena. Landa ingurunea
Or.3.14.- Ekonomia sozialeko enpresei pizgarriak ezartzea langabezia-egoeran dauden emakumeak kide-langile gisa sartzeko.	Ekonomia sustapena
Or.3.15.- Zerga desberdinak eta hauen salbuespenen inguruko genero eragina ezagutzeko azterketak egitea, erabaki fiskalak hartzerako garaian irizpide hau txertatuz.	Politika fiskal eta finantzarioa
Or.3.16.- Neurri fiskal batzuetan balizko generoaren arabera desbideraketak aztertzea, lanaren banaketa sexuala eta genero estereotipoak zeharka piztu litzaketenak.	Politika fiskal eta finantzarioa
Or.3.17.- Gipuzkoan emakumeen eta gizonen joan-etorrien inguruko aldizkako azterketak egitea genero ikuspegitik, bereziki Lurraldebus eta bidegorrien erabilerari dagokionez.	Mugikortasuna eta Garraio Publikoa
Or 3.18.- Mugikortasun iraunkorra –Lurraldebusen nahiz bizikleta bidezkoa– sustatuko duten neurriak bultzatzea, kontuan hartuta Gipuzkoako emakumeen eta gizonen joan-etorriei buruz genero ikuspegiarekin egiten diren aldizkako azterketen emaitzak, garraio publikotik lagunduz – partekatutako helburu gisa eta beraren ahalbideen neurrian– erantzunkidetasuna eta kontziliazioa gauzatzea errazten.	Mugikortasuna eta Garraio Publikoa